

ALKATE DEKRETUA

Nik, Izaro Elorza Arregik, Oñatiko Alkate naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz, ondorengo agintzea erabaki dut:

Informatikako laguntzaile lan-poltsa sortzeko hautaketa-prozesuko epaimahai kalifikatzailearen izendapena egitea.

2019ko urriaren 9ko alkate dekretu bidez, INFORMATIKAKO LAGUNTZAILE LAN-POLTSA eratzeko deialdia eta oinarri arautzaileak onartu ziren. Izena emateko epea 2019ko azaroaren 5ean amaitu zen. Aurkezturiko izangaien eskaerak aztertu dira, baita onartutako eta baztertutako behin-betiko zerrendak onartu ere.

Orain, hautaketa-prozesu horretako Epaimahai kalifikatzailea izendatu beharra dago, hautaketa-prozesuarekin jarraitzeko.

Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legearen 21.1g) atalak ematen dizkidan eskuduntzak erabiliaz, erabakitzen dut:

Lehenengoa: INFORMATIKAKO LAGUNTZAILE LAN-POLTSA bat eratzeko prozesuaren EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA izendatzea.

Epaimahaiburua:

Jesus Mari Madinabeitia Jauregi – Oñatiko Udaleko Idazkaria

Epaimahaikideak:

Izar Salaberri Iñarra - Oñatiko Udaleko teknikaria

Leire Urbieta Gandiaga - Aretxabaletako Udaleko Informatikaria

Iker Agirresarobe Urdanpilleta - Arrasateko Udaleko Pertsonal saileko Informatikaria.

Epaimahaiko Idazkaria:

Begoña Alkorta Yarza - Oñatiko udaleko AOT.

Bigarrena.- Erabaki hau iragarki-taulan eta www.onati.eus webgunean argitaratzea.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut.

Oñatin, 2020ko otsailaren 10ean.

ALKATEAK

Izaro Elorza Arregi